

%9,63

Abendutik urtarrilera, %9,63 igo da langabezia Hego Euskal Herrian. Bestela esanda, ehun langiletik batek lanpostua galdu du. 12.875 lagunek eman dute izena INEMen zerrendetan, eta, guztira, 146.468 pertsona ari dira lan bila.

%23,4

Urtarrilean ere behera egin du auto salmentak Hego Euskal Herrian. Iaz 4.777 auto saldu ziren; aurten, berriz, 3.656 baino ez dira merkaturatu, hau da, %23,4 gutxiago. Espainian eta Frantzian ere jaitsi egin da autoen salmenta; %41,6 eta %7,9, hurrenez hurren.

15.000

Enplegua erregulatzeko dosierak izan dira nagusi aste honetan ere, bai Euskal Herrian eta bai munduan. Panasonicek iragarri du kaleratze gehien. 27 lantoki itxiko ditu eta, horren ondorioz, lanik gabe geratuko dira 15.000 lagun.



ERDI BETETA, ERDI HUTSIK

Espainia aldean Gobernu eta bankuak krisiaren errudinei eta konponbideei buruz eztabaidan zebiltzala, hemengo aurrezki kutxek iazko emaitzen berri eman dute. Txarrak edo onak diren erabakitzea ohi baino zailagoa izan da, denek dirua barra-barra irabazi arren. Edalontzia erdi beteta ikusteko arrazoiak ditu Gregorio Rojok (irudian), Vital Kutzak 2007an baino %5 gehiago irabazi zuelako iaz. Erdi



hutsik dirudite, berriz, Gipuzkoa Donostia Kutzarenak eta Euskadiko Kutzarenak. Mondragon taldeko kutxaren mozkinak %45 murriztu dira, hein handi batean Lehman Brothersen zuen diruaren zati handiena galdutzat eman duelako. Gipuzkoa Donostia Kutzak ere %34,5 gutxiago irabazi du, kasu horretan higiezinetan egindako zenbait inbertsio ustel estali behar izan dituelako». RAUL BOGAJO / ARCAZKI PRESS



«Bankuengatik izan ez balitz, egungo krisian ekonomia are gehiago hondoratuko zen»

MANUEL MARTÍN
ESPAINIAKO BANKUEN ELKARTEKO BURUA



«[Espainiako] Gobernuari bukatzen ari zaio bankuekin duen pazientzia»

MIGUEL SEBASTIAN
ESPAINIAKO INDUSTRIA MINISTROA



«AEBetan ez bezala, euroaren eremuan ez dira egokiak %oko interes tasak»

JEAN CLAUDE TRICHET
EBZ-KO PRESIDENTEA

Langabezia neurtzen

Urtea 133.593 langaberekin amaitu zen Hego Euskal Herrian. Hori da INEM enplegu agentzia publikoan izen eta abizenak eman dituzten pertsona langabeen kopurua. (Azken datua aurtengo urtarrilekoa da eta larriki gora egiten darrai: 146.468 langabe).

Langabezia neurtzeko beste metodoak hiru hilabeteko egiten diren inkestak dira. Zehazki, bi: bata, INEk Estatuan egiten duen *Encuesta de Poblacion Activa* (EPA) eta bigarrena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Eustat erakundeak egiten duena, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) izenekoa. Eta bi inkesta hauen arabera Hego Euskal Herrian, hurrenez hurren, 113.700 edo 71.500 langabe zegoen 2008 urte amaieran. Ikus daitekeenez diferentziak nabarmenak dira, bai INEMen izena eman dutenekin alderatuta, eta batez ere INEk eta Eustatek ematen dituzten datuen artean. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako INEk 88.600 langabetu zenbaitzen dituen bitartean, Eustatek 46.400 soilik kontatzen baititu, 42.200 gutxiago.

Azter ditzagun INEMen eta inkesten datuen arteko ezberdintasunak. Metodologikoki iturri ezberdinak dira, lehena erregistro administratiboa delako eta bigarrena populazioaren lagin baten gainean jasotzen den inkesta, errore tartekak dituena. Ezberdintasun nagusia langabea definitzean sortzen da. INEMen arabera bulego publikoetan lana eskatzeko izena ematen duten langabeak dira. Langabearen izaera egiaztatze gizar-tegurantzako datu-baseekin alderatzen dira norbanakoen datuak. Halere, hainbat talde baztertzeko dira: atzerrian edo hiru hilabete baino gutxiagoko edota astean 20 ordu baino gutxiagoko lanpostuak eskatzen dituztenak; pentsiodunak; 25 urte baino gazteagoko ikasleak; lehen lanpostuaren eske ari diren ikasleak nahiz 25 urte baino gehiago izan; eta lan-txertaketarako jarduerak alboratzen dituzten lan eskaleak.

Aldiz, bai EPAk, bai BJAk, Nazioarteko Lan-Erakundeak eta Europako Batzordeak ezarritako irizpideei segiz, langabea kontsideratzeko honako hiru baldintza hauek betetzea eskatzen du: erreferentziatzeko astean ordubete ere lan egin ez izana, aurreko lau asteetan era aktiboan lana bilatzea eta hurrengo bi asteetan lanerako prest egotea. 2002 urteaz geroztik, enplegu-bulego publikoan erregistratua izate soilik ez da aski baldintza langabe kontsideratzeko, gestio aktiboak egin beharra dago halaberharrez.

1977tik 2004ra INEMek emandako langabekopuruak inkestek emandakoen azpitik egon dira sistematikoki, eta horren arrazoi nagusia «langabezi desanimatua» zen, hots, langabezi tasa altuko urteetan langabeek ez zuten INEMen izena ematen, erakundearen eraginkortasun eskasa zela eta. Bigarren arrazoiak da INEMek alboratzen dituen kolektiboak, goian aipatutakoak, inkestetan langabe kopuruak inkestek eman dituztenen gainetik egon dir, bi arrazoi medio: lehena, lan bilaketa aktiboa egiten ari dela onartzeko baldintzak gogortu egin dira (ez da aski INEMen izena ematea); eta bigarrena, posiblea da INEMen izena emanda egotea eta inkestek eskatzen dituzten baldintzak ez betetzea, aurreko astean bi orduz lan egin izana kasu.

Bi arrazoi hauen bitartez esplika daiteke INEMen eta EPAREN datuak ez doitzea, hiru herrialdeetan 12.000 langabe ingurukoa ezberdintasuna hain zuzen. Baina nekez esplika daiteke INEM eta BJAren artekoa, 60.000 langabetu ingurukoa. EUSTATEK informazioa biltzeko INEk baino lau aldiz inkesta gehiago egiten duen arren, 46.400 langabe daudela onartzeko, INEMen zerrendatuta dauden ia 60.000 pertsona (langabet erregistratu guztien % 60!) ez daudela lan bila pentsa beharko genuke. Nekez! Azken urteetan EUSTATEK ematen duen informazio estatistikoaren inguruko mesfidantzak ugaltu egin dira. 2006an, esaterako, ELA sindikatuak iturri honetako estatistikak erabiltzeari utzi zion sinesgarritasun eza egotzita. Beste sindatu batzuen kritikak ere jaso ditu. Azkenekoa, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilutik iritsi da, estatistika erakundeari lan-metodoak berrikus ditzan eskatuz.



Joseba Garmendia